



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO



GOGOETA ESTRATEGIKOA EAEko PROSTITUZIOAREN GAINEAN

AURKIBIDEA

FITXA TEKNIKOA	3
IKERKETAREN EMAITZAK	5
1. Esku-hartze publikoaren esperientziak prostituzioaren alorrean	6
2. Gizartearen diskurtsoa prostituzioaren aurrean	25
3. Herritarren balorazioa prostituzioan esku hartzeko neurriei buruz eta Administrazio Publikoaren eginkizuna	36
4. Emakunderen gomendioak Administrazio Publikoek prostituzioan esku hartzeko	44

FITXA TEKNIKOA

FITXA TEKNIKO

Ondoren, proiektu honekin **bete ditugun helburuak** deskribatuko ditugu, bai eta helburu bakoitzerako **erabilitako metodologia** ere:

1. faseko helburua:

Prostituzioaren egoeran eragiteko **esku-hartze publikoen esperientziak** ezagutzea.

1. faseko metodologia:

on/off line berrikustea bibliografia eta dokumentuak, prostituzioaren alorrean Estatuan eta nazioartean egindako esku-hartzei buruzkoak.

2. faseko helburua:

Prostituzioaren gaineko diskurtso soziala hezurmamitzen duten **elementu nagusiak** aztertzea eta **Administrazio Publikoek esku hartzeko balia ditzaketen neurriak** zehaztea.

2. faseko metodologia:

- ▣ **7 elkarrizketa ireki eta sakon**, erdi egituratutako gidoidunak, EAEn ibilbide luzea duten **gizarte-eragileei** eginak; eragile horiek hainbat eremutan esku hartzen dute eta genero-gaietan sentiberatasun desberdinak dituzte.
- ▣ **4 eztabaida-talde**, gai irekien gidoian oinarrituak. Kideak:
 - 20-35 urte arteko gizonak, a priori, prostituzioaren aldekoak.
 - 36-50 urte arteko gizonak, a priori, prostituzioaren aurkakoak.
 - 25-35 urte arteko emakumeak, a priori, prostituzioaren aldekoak.
 - 36-50 urte arteko emakumeak, a priori, prostituzioaren aurkakoak.


3. faseko helburua:

Gomendioak ezartzea EAEn eremuan prostituzioaren gaietan esku hartzeko.

3. faseko metodologia:

- ▣ **Kabinete-lana**, lortutako informazioa aztertzeko.
- ▣ **2 elkarrizketa ireki eta sakon**, Administrazio Publikoetan aritzen diren prostituzioaren arloko **adituekin**.
- ▣ **2 lan-bilera**, Emakundeko **Zuzendaritzarekin**.

IKERKETAREN EMAITZAK



1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN



1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

SARRERA

Ondoren aletzen diren esku-hartze publikoen esperientzien **sinthesia** egiteko, **bibliografia eta dokumentuak sakonki berrikusi dira**; hainbat ikuspuntu eta instituziotatik egindako hurreratze estrategiak eta neurriak jasotzen dira. Horien artean, **Estatu espainiarrari dagokionez, udal edo autonomia erkidegoko esku-hartzeak** dira; **nazioarteko esperientziak** berriz, Estatuan aplikatzekoak dira, Australia eta Mexikoko kasuak izan ezik.

Estatu espainiarraren kasuan, nola Gaztela Mantxako Eskualdeko Parlamentuan hala Senatuan planteatutako **gaikako batzordeetan egindako txostenak** jasotzen dira.

Esku-hartzearen esperientziak
Estatuan:

- Udaletan eta autonomia erkidegoetan.
 - ❖ Madril
 - ❖ Valentzia
 - ❖ Bilbao
 - ❖ Katalunia
 - ❖ Andaluzia
- Gaikako Batzordeak.
- Gaztela-Mantxako Parlamentuko Emakumearen Batzordearen txostena
 - Prostituzioari buruzko Ponentziaren txostena (Senatua).

Esku-hartzearen esperientziak
Nazioartean:

- ❖ Holanda
- ❖ Alemania
- ❖ Ingalaterra
- ❖ Suedia
- ❖ Danimarka
- ❖ Hungaria
- ❖ Norvegia
- ❖ Grezia
- ❖ Mexiko
- ❖ Peru
- ❖ Brasil
- ❖ Australia

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

PROSTITUZIOAREN FENOMENOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN SINTESIA

1. Kaleko prostituzioa debekatzea.
2. Proxenetismoa debekatzea.
3. Bezeroari asmoa kentzea.
4. Poliziaren prestakuntza.
5. Gizartea sentsibilizatzea prostituzioaren gainean duen pertzepzioa aldatzeko eta sexu-salerosketa arbuia dezan lortzeko.
6. Sentsibilizazio-kanpainak, genero-rolen aldaketan eraginez gizartearen pertzepzioa aldatzeko.
7. Prostituzioaren fenomenoak ikertzea.
8. Sexu-salerosketaren publizitatea ezabatzea.
9. Prostituzioan aritzen diren pertsonak babestu eta laguntzea.
10. Prostituzioan dabilen emakumeen elkartegintza sustatu eta aitortzea.
11. Praktika seguruak sustatzea, sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko.
12. Sentsibilizazio-kanpainak, bezeroentzat.
13. Prebentzio eta arretarako prestakuntza, prostituzioan dabilen emakumeekin harremanetan dauden profesionalentzat.
14. Prostituzioan dabilen emakume etorkinen egoera erregularizatzea.
15. Prostituzioa uzten laguntzea eta utz dezaten sustatzea.
16. Klubak edota lokalen ordutegiak eta ezaugarriak arautzea.
17. Nahitaezko azterketa medikoak.
18. Prostituzioan ari diren pertsonen egoera erregulatzea.
19. Prostituzioa arautzea.
20. Prostituzioa legeztatzea.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

Neurriak bildu ondoren, **prostituzioaren fenomenoaren inguruan duten helburuaren arabera multzokatu ditugu**. Horretaz gainera, beste helburu osagarri bat ere lortu nahi izan da: neurriak ordenatzea eta zentzuz hornitzea, **ikerketa osoan ongi ulertzeko eta baloratzeko**.

PROSTITUZIOAREN FENOMENOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN SAILKAPENA

- Kaleko prostituzioa eta proxenetismoa kentzeko neurriak
- Gizartea sentibilizatzeko eta prostituzioaz duen pertzepzioa aldatzeko neurriak
- Prostituzioan aritzeko baldintzak hobetzeko neurriak
- Prostituzioa utz dezaten sustatzeko neurriak
- Prostituzioa arautzeko neurriak

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA EZABATZEKO NEURRIAK

1. Kaleko prostituzioa debekatzeko (I).

Kaleko prostituzioa debekatzeko neurria hedatuenetariko bat da aztertutako esperientzia guztietan. **Ingalaterran**, prostituzioa egiten uzten da, banaka praktikatzen bada behintzat. Arau-hauspena da, ordea, prostituzioa agerian egitea (kalean jendea erakartzea eta kontratatzea, publizitatea...)

Danimarkaren kasuan, prostituzioa banaka praktikatzea onartuta dagoen arren, debekatuta dago bezeroak bide publikoan bilatzea. Hala zehazten du bide publikoan zerbitzuak adosteko zigor-kodeko artikulua honek: «*Gehienez, urtebeteko kartzela-zigorra izango du gehiegikeria sustatzen duenak, gainerakoentzat kaltegarri izan daitekeen bizimodua erakusten duenak edo haserre publikoa eragiten duen pertsona orok*».

Bestalde, **Suedian**, prostituzioa formalki zigortu gabe dagoen arren, prostituzioaren bezeroek 6 hilabete eta urtebete arteko kartzela-zigorra izan dezakete, nahiz eta, oro har, administrazio isunak eta zehapenak jartzen dituzten.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA EZABATZEKO NEURRIAK

1. Kaleko prostituzioa debekatzea (II).

Estatuan, debekatuta dago sexu-zerbitzuen salerosketa Bartzelonan, Valentzian eta Madrilén. Neurri hori espazio publikoen erabilerari buruzko ordenantzetan jasotzen da.

Bartzelonaren kasuan, “Bartzelonako espazio publikoan herritarren elkarbizitza sustatzeko eta bermatzeko neurrien ordenantza (2005)” dokumentuan, atal espezifiko bat dago “sexu zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko espazio publikoaren erabilera” izenekoa. Atal horretan araudiaren helburua jasotzen da: «[...] klean sexu-zerbitzuak eskaintzeko edo eskatzeko praktika adingabeek ez ikustea, elkarbizitzari eustea eta leku publikoetan bide-arazoak saihestea eta giza talde jakin batzuen esplotazioa eragozteak». Halaber, «[...] Debekatuta dago espazio publikoan ordaindutako sexu zerbitzuak, zuzenean edo zeharka, eskaintzea, eskatzea, negoziatzea edo onartzea, praktika horiek espazio publikoen bateragarritasuna bertan behera uzten edo mugatzen dutenean». Araudiaren arabera, polizia gaituta dago isunak jartzeko bai prostituzioa praktikatzan dutenei bai bezero izan daitezkeenei.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA EZABATZEKO NEURRIAK

1. Kaleko prostituzioa debekatzea (III).

Valentziako Udalak, espazio publikoetako ekintzei buruzko 2005eko ordenantzaren bidez zigortu egiten du: « [...] espazio publikoetan irabazizko jarduerak gauzatzea, hala nola, auto aparkatzaille eta haizetako garbitzailena, kaleko prostituzioa eta antzeko beste jarduera batzuk, beste herritarren segurtasunean eta gainerako pertsonen eskubideak gauzatzean eragiten dutenez gero». Aurrerago, 4. artikuluan hau adierazten da: «Zehatzekoa izango da diruaren truke espazio publikoetan sexu-zerbitzuak sustatzea, horiei bide ematea edo eskaintzea, herritarren lasaitasuna eta/edo segurtasuna kaltetzen bada [...]»

Kasu horietan, zehapen hauek ezar daitezke:

- Isuna jartzea eskaintzen eta kontratatzen duenari edo kontratatzera doanari soilik.
- Isuna jartzea sexu-zerbitzuak eskaintzen edo kontratatzen dituztenei, urratzen ari den araudiari buruzko lehen abisua eman ostean.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA EZABATZEKO NEURRIAK

2. Proxenetismoa debekatzea.

Ohiko beste neurri bat proxenetismoa debekatzeko datza. Praktika hori debekatuta dago Argentinan, Brasilen edota Danimarkan, eta agindu hori hainbat arlotan aplikatzen dute. **Ingalaterran eta Suedian**, esaterako, hirugarrenak aberasteko debekuan sartzen dira alokairuen eta azpierrentamenduaren irabaziak edo ostalaritzan kontratuak egitearen ondoriozkoak. **Espainiako Estatuan**, legez zigortzen da prostituzioarekin irabaziak lortzea, ez bakarrik indarkeria edota nagusitasun-abusu egoeretan, baita proxenetismo modu oro ere, 1996an zigor-kodea aldatu izanaren ondorioz.

3. Bezeroari asmoa kentzea.

Polizia gehiago jarrita, bezeroari asmoa kentzean oinarritzen da. Prostituzioa zigortuta dagoen lekuetan, helburua zuzenean kontsumitzaileen atzetik ibiltzean oinarritzen da, Suedian, esaterako. Debeku espliziturik ez dagoen lekuetan, berriz, alkoholemia-kontrolak, identifikazioak... gauzatzen dituzte, Madril hiriburuko leku zehatz batzuetan, esaterako. **Casa de Campo** parkeko esku-hartzeek izan dute oihartzunik handiena.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA EZABATZEKO NEURRIAK

4. Poliziaren prestakuntza.

Senatuaren proposamenaren ardatza polizia-indarrek delituen aurkako borrokan duten garrantzia da, delituok nazioartekoak izan edota estatu bakoitzeko zigorkodekoak. Segurtasun-zerbitzuak legez kanpoko prostituzioaren aurkako borrokara egokitu beharra azpimarratzen da. Poliziak prestatzeko, **polizia-koordinaziorako protokoloa ezarriko da, informazioa trukatzea sustatuko da, espezializatutako unitateak sortuko dira, operatzaile juridikoak prestatuko dira eta arlo honi buruzko estatistikak hobetuko dira**, bai eta segurtasun indarren eremuko gainerako elementuak ere.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

II. GIZARTEA SENSIBILIZATZEKO ETA PROSTITUZIOAZ DUEN PERTZEPZIOA ALDATZEKO NEURRIAK

5. Gizartea sensibilizatzea prostituzioaren gainean duen pertzepzioa aldatzeko eta sexu-salerosketa arbuia dezan lortzeko.

Egituratutako komunikazio-ekintzak gauzatu behar dira, prostituzioaren inguruan gizarteak dituen jarrerak eta portaerak aldatzeko.

Badira horren hainbat adibide praktiko; esaterako sensibilizazio-kanpainak, “*Porque tú pagas, existe la prostitución*” (**Madriilen eta Mallorcan**) eta «*¿Tan poco vales que tienes que pagar?*» (**Sevillan**).

Senatuaren txostenak jarduera-ildo bat sortzea ere gomendatzen du, gizarteak etikoki ekintza gaitzesgarritzat jo dezan prostituzioa kontsumitzea. Hala, txostenaren premisaren arabera: «*prostituzioaren fenomeno eta emakumeen salerosketa erabat uztartuta daude, prostituzioan aritzen diren emakume gehienak pertsona-salerosketaren biktima baitira edo izan baitira*».

6. Sensibilizazio-kanpainak, genero-rolen aldaketan eraginez gizartearen pertzepzioa aldatzeko.

Kasu honetan, **komunikazio-ekintzen helburua da prostituzioa genero-desberdintasunaren ondorio dela erakustea eta gizarteak praktika horrekiko erakusten duen tolerantzia deslegitimatzea**. Hori da Senatuko Batzordeak gomendatutako neurrietako bat, zeina abian jarrita dagoen **Europa iparraldeko herrialdeetan** (Suedia, Danimarka...)

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

II. GIZARTEA SENSIBILIZATZEKO ETA PROSTITUZIOAZ DUEN PERTZEPZIOA ALDATZEKO NEURRIAK

7. Prostituzioaren fenomenoak ikertzea.

Senatuak proposatutako neurria da, **prostituzioaren fenomenoak ezagutzeko eta fenomeno horren ezaugarrien, bilakaeraren eta horiei loturiko gainerako elementuen jarraipena egiteko**. Hala, Estatuari dagokionez, hainbat motatako ikerketak egin dituzte autonomia erkidego batzuetan (Andaluzia, Madril, Nafarroa, Katalunia...), prostituzioan aritzen diren pertsonen egoerari eta egungo baliabideei buruzko mapak eta diagnostikoak egiteko.

8. Sexu-salerosketaren publizitatea ezabatzea.

Egun hedabideetan kontaktuen iragarkiak agertzea debekatu ezin denez, hedabideei eskatzen zaie, **kode deontologikoen eremuan, uko egin deizaiotela sexu-salerosketarekin zerikusia duen publizitateari**. Eskaera hori jasota dago bai **Gaztela Mantxako** Parlamentuaren txostenaren ondorioetan bai Espainiako **Goiko Ganberak** kaleratutako txostenean.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

III. PROSTITUZIOAN ARITZEKO BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRIAK

9. Prostituzioan aritzen diren pertsonak babestu eta laguntzea.

Neurri horien xedea da prostituzioan aritzen diren emakumeei **prestakuntza edo aholkuak ematea, bezeroak nola tratatu jakin dezaten. Hala, jokabide-arau egokiak, defentsarako teknikak, informazioa eta egungo baliabideei buruzko aholkularitza, etab. izango dituzte.**

10. Prostituzioan dabiltzan emakumeen elkartegintza sustatu eta aitortzea.

Neurri hori jasota dago **Kataluniako Gobernuak** proposatutako Sexu Zerbitzuen Legean, zeina azkenean ez zen onartu. Helburua prostituzioan dabiltzan emakumeen sareak sortzea eta sustatzea zen, gizatalde horiekin lanean diharduten elkarteekin akordioak sinatuta. Elkarteen arteko solasaldia aitortuta dago herrialde batzuetan; esaterako, **Brasilen**. Beste batzuetan, berriz, **Holandan eta Alemanian** adibidez, prostituzioa legeztatuta egonda, horretan aritzen diren pertsonak ordezkatzeko dituzten sindikatuak daude.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

III. PROSTITUZIOAN ARITZEKO BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRIAK

11. Praktika seguruak sustatzea, sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko.

Arreta, informazioa eta orientazioa emateko programak egiten dira STG (sexu-transmisiozko gaixotasunak) eta GIB (giza immunoeskasiaren birusa) transmititzea saihesteko, eta **arreta eta prebentzio ginekologikorako osasun-baliabideak ezagutu eta baliatu ditzaten ahalbidetzeko**. Horren adibide da **Andaluziako** osasun-prebentziorako programa. **Euskadin** ere badago antzeko esku-hartze ildorik, arlo honetan lan egiten duten erakundeek eta baliabideek garatua. Kasu guztietan, praktika seguruak nola praktikatzailearentzat hala bezeroarentzat sustatzen dira.

12. Sentsibilizazio-kanpainak, bezeroentzat.

Sentsibilizazio-kanpaina horien helburua da **sexu-zerbitzuen eskatzaileek tratu duina eta jarrera errespetuzkoak eta arduratsuak izatea prostituzioan aritzen diren pertsonekin harremanetan daudenean**. Esku-hartze modu hori prostituzioa legeztatuta dagoen lekuetan gauzatzen dituzte, batez ere **(Holanda eta Alemania)**.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

III. PROSTITUZIOAN ARITZEKO BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRIAK

13. Prebentzio eta arretarako prestakuntza, prostituzioan dabilzan emakumeekin harremanetan dauden profesionalentzat.

Neurri horri **Senatuko** Batzordeak sustatu zuen, eta **Madrilgo eta Bartzelonako** udaletako jarduera-planean planteatu zen. Esku-hartze horren arabera, **funtzionarioak, elkarteak, segurtasun indarrak eta nazioarteko lankidetzan diharduten pertsonak prestatu behar dira, giza talde horren ezaugarriak, bilakaera, beharrak, eskaerak, etab. zeintzuk diren jakin dezaten.** Prestakuntza-neurri horren helburuak hainbat alderdi ukitzen ditu. Batetik, poliziaren eta legezko esku-hartzeak hobetu eta sustatu nahi dira eta, bestetik, arreta optimizatu esku hartzeko baliabideetan (gizarte, osasuna, prestakuntza eta antzeko arloetan).

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

IV. PROSTITUZIOA UTZ DEZATEN SUSTATZEKO NEURRIAK

14. Prostituzioan dabiltzan emakume etorkinen egoera erregularizatzea.

Prostituzioan dabiltzan emakumeak erregularizatu nahi dira eta, bakoitzaren egoera aztertu ostean, aldi baterako bizilekua eman nahi zaie arrazoi humanitarioengatik (eskumena Estatuarena da). Kasu honetan, neurria Kataluniako Sexu Zerbitzuen Legearen proposamenetik atera da, nahiz eta prostituzioan dabiltzanen administrazio-egoera jasota dagoen pertsonen salerosketa eta esplotazioari buruzko kasu zehatzetan ere, zehazki, Atzerritarrei buruzko Espainiako Legearen 59. artikuluan, Antolatutako Sareen kontrako Lankidetzari buruzkoan, honako hau baitio: «[...] *Gizakien legez kanpoko salerosketaren, legez kanpoko immigrazioaren edo esku lanaren legez kanpoko salerosketaren edo prostituzioaren arloko esplotazioaren biktima, kaltetuna edota lekukoa izateagatik, dokumentaziorik gabe dauden edota dokumentazio irregularra duten atzerritarrak administrazio erantzukizunetatik salbuetsita gera daitezke eta ez dira Espainiatik bidaliko, agintaritza eskudunei salerosketa horren egileak edota laguntzaileak zeintzuk diren salatzen badiete*» (2004an sartutako aldaketa).

Proposatutako neurriaren funtsa Pertsonen Salerosketa Saihesteko, Erreprimitzeko eta Zehatzeko nazioarteko Protokoloan dago, Palermoko Protokoloa (2000) deiturikoan.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

IV. PROSTITUZIOA UTZ DEZATEN SUSTATZEKO NEURRIAK

15. Prostituzioa uzten laguntzea eta utz dezaten sustatzea.

Ekintzak eta programak proposatzean dira, prostituzioa utzi nahi duten emakumeei alternatiba bat eskaintzeko, praktika hori utz dezaten sustatzeko. Programa horietan prestakuntzako, lan munduan sartzeko eta diru-laguntzak eta etxebizitza eskuratzeko neurriak egon daitezke; edonola ere, egungo baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza emateko ekintzak. **Madrilen**, esaterako, Prostituitutako Emakumeei Laguntza Integrala Emateko Programa dago; bertan, aurreikusita dago gizatalde hori informazioa emateko eta laguntzeko hurreratze-proiektu bat eta Concepción Arenal Prostituitutako Emakumeei Laguntza Integrala Emateko Zentroa sortzea ere, jarraipenerako, ahalduntzerako eta gizarteratu eta laneratzeko. **Bartzelonan**, Pla ABITS izenez ezagutzen den planean (sexu-lanari osorik heltzeko plana), garapenaz arduratuko den udal agentzia bat sortzea jasotzen da, kalean esku hartzeko zehaztutako ildoak eta programak kudeatzeko. Besteak beste, kale-hezitzaileak izatea, osaera anitzeko erakunde teknikoak (administrazio publikoa eta gizarte erakundeak) eratzea eta prestakuntza emateko eta gizartean eta lan munduan sartzeko ildoak diseinatzea jasotzen da.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

V. PROSTITUZIOA ARAUTZEKO NEURRIAK

16. Klub edo lokalen ezaugarriak eta ordutegiak arautzea.

Klubetan sexu zerbitzuak eskaintzeko baldintzak, horien ezaugarri higieniko-sanitarioak, hornikuntza logistikorako eskakizunak, fatxaden ezaugarriak edo lokalen egoera arautuko dituzten araudiak ezarri nahi dira. Kasu honetan, hainbat adibide aurki ditzakegu:

Hurbilen dugun adibidea **Bilbokoa** da. Bertan, CiUren gobernuaren azken legegintzaldian harremanak izateko lokalei buruz Generalitateak onartutako araudiari jarraiki, klubetako sexu-zerbitzuak praktika hori egiteko lege-lizentzia duten lokaletan baino ezingo dira eskaini. Antzeko araudia dute **Australiako eta Mexikoko** hiri batzuetan ere. Horrez gain, kasu batzuetan kanpoko fatxaden itxura eta publizitatea arautzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Kluben ezaugarrien araudia baliagarri da halaber, harremanetarako lokalen arteko gutxieneko distantziak eta lokal horien eta beste espazio jakin batzuen artekoak zehazteko (eliza, ikastetxe, parke publikoen artekoak...). Erregulazio horretan, espazioen barne banaketarako araudiak eta eskakizun higieniko-sanitarioak ere jasotzen dira.

Hala, Sexu Zerbitzuen Kataluniako Legearen zirriborroak lokal bakoitzean egon beharreko emakumezkoen eta gelen gehienezko kopurua ezartzen du, makro-kluba sortzeko aukera galaraziz. Planteatutakoaren arabera, sexu-zerbitzuak lokaletan baino ez dira eskainiko, eta lokalok profesionalek kudeatuko dituzte edota hirugarrenei alokatuko zaizkie, alokairu-kontratuaren bidez eta aurrez zehaztutako zenbatekoaren truke, proxenetismoaren ondoriozko irabaziak saihestu nahi dira-eta. Lokal horietako batean lan egiten duen edonork (zerbitzaria, dantzaria, prostituta...) lan-kontratua eduki beharko du, eta debekatuta dago prostitutak lantokian bizitzea. Gainera, lokalak irekita egoteko denbora arautzen du: egunean, gehienez, 8 orduz eta asteen 6 egunez. Horrez gain, sarrerak, irteerak eta emakumeek egindako lanorduak erregistratu behar dira.

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN

V. PROSTITUZIOA ARAUTZEKO NEURRIAK

17. Nahitaezko azterketa medikoak.

Prostituzioan aritzen diren pertsonak, aldizka, osasun azterketak egitera behartu nahi dira, praktika horretarako gaitasuna arau bidez emateko. Neurri hori hainbat herrialdetan aplikatzen dute; esaterako, **Mexikon, Perun, Grezian...** Kasu horietan, azterketa medikoak prostituzioan aritzen direnek ordaintzen dituzte.

18. Prostituzioan aritzen diren pertsonen egoera arautzea.

Prostituzioan aritzen diren pertsonen, **lan-kategorian sexu-langileak izendapenaren orde, profesional independenteak izendapenaz erregistratzeko aukera eman nahi zaie.** Hala, soldata-kotizazioaren ondoriozko eskubide guztiak izango dituzte; hau da, beste edozein langilek dituen eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte. Hori egiten dute, adibidez, **Danimarkan eta Hungarian.**

Beste kasu batzuetan, **prostituzioa praktikatzeko gaitzen duten udal erregistroei lotuta egoten da** pertsona praktikatzaileen erregulazioa. **Hala, hainbat eskakizun bete behar izaten dituzte** (tasen ordainketa, osasun fisikoaren eta psikikoaren azterketak...). Hori gertatzen da **Perun eta Mexikoko hiri batzuetan.**

1. ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN ESPERIENTZIAK PROSTITUZIOAREN ARLOAN


V. PROSTITUZIOA ARAUTZEKO NEURRIAK

19. Prostituzioa arautzea.

Neurri arautzaile hori **Alemanian** aplikatzen dute: **prostituzioa lan jardueratzat hartzen dute**, eta ostalaritza kategorian jasotzen da, jarduera zehaztu gabe. Lan-jardueratzat kategorizatu izanari esker, **lan-kontratuak egiten zaizkie, gizarte segurantzaz baliatzen dira eta laguntza medikoa eta erretiro-pentsioa izaten dute.**

20. Prostituzioa legeztatzea.

Erreferentziazko eredu klasikoa **Holandakoa** da. Horren arabera, prostitutak klubetako langileak direnean, **soldatakoen araubidean** egoten dira, eta euren kontura lan egitea erabakitzen dutenean, **autonomo gisa ere jardun dezakete**. Ez dago legedi nazional osorik, arauen eta baimenen alderdi asko udalerrien eskumenekoak dira-eta. Udalerriok autonomoki lantzen eta aplikatzen dituzte lege-aginduak (irekitzeko baimenak, harremanak izateko espazioak, auzo gorriak deiturikoen eremuak zehaztea...).



2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN



2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

SARRERA

Prostituzioaren fenomenoaren aurrean gizarteak duen diskurtsoaren ñabardura eta funtsezko elementuak bildu ahal izateko, bi jomuga zehaztu dira:

- Batetik, **gizarte-erakundeak**, hainbat mota eta jarduera-eremutakoak, EAEn esperientzia handia dutenak, eta genero-kontuei buruz sentsibilitate desberdinatakoak direnak. Prostituzioari buruz diskurtso sozial egituratuagoa eta militanteagoa eman diezaguten lortu nahi da. Azken batean, **diskurtso sozial antolatua**.
- Bestetik, **euskal herritarrak**, hainbat aldagairen, sexuaren, adinaren eta prostituzioari buruz duten jarreraren arabera sailkatuak. Kaleko diskurtso soziala ekar diezaguten lortu nahi da. Azken finean, **banakako diskurtso soziala edota pertsonala**.

Jarraian, horietako bat aztertuko dugu.

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

GIZARTE ERAKUNDEEN DISKURTSOAREN AZTERKETA

- Elkarrizketatutako erakunde gehienek, **erakunde diren aldetik, ez dute argiro zehaztutako jarrerarik prostituzioaren inguruan**. Askotan, erakunde barruan egiteke dagoen eztabaida da edo egiteko prozesuan dagoena.
- Erakundeek diskurtso zeharo ideologikoak dituzte. Bi ildo kontrajarritan sintetizatu daitezke: jarrera **abolizionista edo erregulazioaren aldekoa**.
- Ikuspegi bi horiek antzeko premisa bat dute oinarri: **prostituzioa desberdintasun eta genero-mendekotasunaren ondorio da. Beraz, praktika ez desiragarria da.**

• **Abolizionismoaren** eredu klasikoaren arabera, prostituzioan aritzea ez da zigortu behar; bai, ordea, prostituzioaren inguruko gainerako elementu guztiak. Proxenetismoaren aurka egiten da, bezero izan daitezkeenentzat asmoa kentzeko esku hartzeak artikulatuta. Prostituzioan aritzen denaren aurka, ordea, ez da ezer egiten. Helburua pertsona horren gizarteratzea da, prostituzioa utz dezan lortzea, esku-hartze sozio-laboraleko eta antzeko programen bitartez. Ikuspegi honen bidez, **prostituzioa erauzi nahi da, prostituzioa egon badagoela aitortuz eta prostituzioan aritzen dena biktimatzat hartuz, helburu izanik pertsona hori birgaitzea eta gizarte eta lan-mundu normalizatuan sar dadin laguntzea.**

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

GIZARTE ERAKUNDEEN DISKURTSOAREN AZTERKETA

• Diskurtso **abolizionista**ren aldeko edo ikuspegi horretatik gertu dauden erakundeek ezinbestekotzat jotzen dute prostituzioaren fenomenoari heltzea, **prostituzioaren erauzketa sustatzeko, saihestezinezko helburua baita**. Hori dela-eta, prostituzioan aritzen diren pertsonen lan-baldintzak hobetzeko neurriak egokitzen jotzen ez direnez, prostituzioa erauzteko esku-hartzeak sustatzen dituzte. Hala, prostituzioan ari direnek jardura bertan behera uzteko esku-hartzeen estrategien alde egiten dute eta bezero potentzialak atzerarazteko neurriak ere defendatzen dituzte. Horrez gain, gizartea kontzientziatu behar dela uste dute, prostituzioaren praktika eta kontsumorako gizartean dagoen legitimazioa eta eskaera ezabatzeko.

• **Erregulazioaren aldeko paradigmak** prostituzioa egiten uzten du, jardura arautuz. Marko hori garatzeko eredu tradizionalaren helburua prostituzioan aritzen direnak kontrolatzea izan da, zehaztutako araudiaren baitan prostituzioa legez egitea ahalbidetuko duten eskakizunen bidez (osasun-kontrolak, tasak...). Esku hartzeko eredu horretan, hainbat arau-garapen ikus dezakegu. **Prostituzioa legeztatuta edo utzi ostean, baldintzak, espazioak, eskubideak, betebeharrak... arautzen dituzte, arreta hainbat kontutan jarrita**. Arau-eredu horretan, beraz, helburu eta motibazio desberdinetako araudi-markoak biltzen dira. **Aukera horretan daude, besteak beste, prostituzioa mugatzeko araudi murriztaileak eta marko legeztatzaileak**, non prostituzioa beste edozein lan jardueraren edota jardura ekonomikoren pare jartzen den.

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

GIZARTE ERAKUNDEEN DISKURTSOAREN AZTERKETA

• **Eredu arautzailetik** gertuago dauden erakundeek, batzuetan, euren autopoizitionamendua egiten dute, ikuspegi abolizionistak eragiten dieten gaitzespenean oinarrituta. Erakunde horiek premisa komun batean oinarritzen dira: **proposatu beharreko edozer esku-hartzek ez ditu inolaz ere okertu behar prostituzioan aritzen diren emakumeen baldintzak eta egoera, gaitasun osoa baitaukate euren nahiak, eskaerak eta lehentasunak adierazteko**. Egungo gizartean prostituzioa badagoela onartuta, egoteak berak arlo honetako esku-hartze publikoa funtsatzen du. Esku-hartze horrek, elementu motibatzaileen bidez, prostituzioan aritzen den emakumearen gaineko egungo ikuspegia eraldatu behar du, gizartean estigmatizatuta baitago, egungo gizarteak prostituzioaren arazoari aurre egiterakoan daukan moral bikoitzaren ondorioz.

• Honela, **prostituzioa utzi nahi dutenei laguntzeko programak abian jartzea planteatzen da, eta jardueraren baldintzak hobetzeko esku-hartzeak garatzea nahitaezko izatea aurreikusten da, bai eta gizartea sentibilizatzeko kanpainak egitearen egokitasuna ere. Kanpaina horiek ez dituzte estigmatizatu behar ez prostituzioa praktikatzen duten pertsonak, ez bezero potentzialak.**

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

GIZARTE ERAKUNDEEN DISKURTSOAREN AZTERKETA

- **Laburtzeko**, aipagarri da **gizarte-erakunde**en diskurtsoaren garapenak bi joera erakusten dituela, **itxuraz bateraezinak**: jarrera abolizionista eta arautzailea.
- **Bi jarrerak adostasun edota elementu komun gutxi daukate, honako hauek salbu:**
 - **Proxenetismoa eta Estatuko egungo legediak zigortutako gainerako elementuak desagerraraztea**; esaterako, esplotazioa, emakumeen salerosketa eta prostituzioa egitera behartzea.
 - **Prostituzioa fenomeno ez-desiragarritzat hartzea, genero-desberdintasunaren ondorioztat**, eta, beste hainbat arrazoiren artean, sexualitate maskulinoaren adierazpenaz gauzatutako nagusitasun patriarkalak eragindakotzat.

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

HERRITARREN DISKURTSOAREN AZTERKETA

- Euskal herritarren diskurtoek erakusten digutenaren arabera, **aldeko edota aurkako jarrerek, a priori, ez dute funtsezko desberdintasunik eragiten gizartearen diskurtoan.**
- Diskurto ugaritan hauteman daitekeen bateratasunaren arrazoia da herritarrek prostituzioaren fenomenora hurbiltzeko darabilten **dimentsio «praktikoa»ren nagusitasuna**. Herritarren diskurtoaren malgutasun pragmatikoari esker, **prostituzioaren arloan esku hartzeko hainbat estrategia dituzten argudioak erabiltzen dira, bai abolizionistak bai arautzaileak.**
- Taldeetan prostituzioaren fenomeno nola ezaugarritzen den honela laburbil daiteke, oro har: **«fenomeno ez-desiragarria, baina beti egon izan dena»**. Prostituzioaren fenomenoaren definizio honek hainbat elementu legitimatzaile eta kritiko dauka; horien artean, nabarmentzekoa da emakumeen diskurtoan eragin handiagoa dutela prostituzioaren iraupenaren azpian dauden desberdintasun eta nagusitasun egoerei buruzko elementuek.
- Jarraian, eztabaida-taldeetan parte hartu duten gizon-emakumeen diskurtsoko **argudio legitimatzaileak eta kritikoak** adierazten dira:

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

HERRITARREN DISKURTSOAREN AZTERKETA

ARGUDIO LEGITIMATZAILEAK (EMAKUMEAK)

- Prostituzioak funtzio sozial bat betetzen du: afektu eta sexu beharrei erantzutea.
- Prostituzioa beti eta munduko edozein lekutan egon izan da.
- Prostituzioak emakumeei baliabide ekonomikoak lortzeko aukera ematen die.
- Emakumeak askatasunez erabaki dezake prostituzioan aritzea, eta erabaki hori errespetatu egin behar da.

ARGUDIO KRITIKOAK (EMAKUMEAK)

- Prostituzioa nagusitasun eta patriarkatu maskulinoan oinarritutako eskema zaharren ondorio da, gizonen eta emakumeen arteko genero-desberdintasunaren erakusgarri garbia.
- Emakumeak gauzatutako jardueraren bidez hirugarrenak aberastea sustatzen du prostituzioak.
- Prostituzioa iraingarria da, batzuetan esklabotasun baldintzetan gauzatua.
- Prostituzioaren ereginez, prostituzioan aritzen diren emakumeen aurkako salerosketari, esplotazioari eta indarkeriari lotutako delitu-egoerak gertatzen dira.

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

HERRITARREN DISKURTSOAREN AZTERKETA

ARGUDIO LEGITIMATZAILEAK (GIZONAK)

- Prostituzioaren funtzio soziala prostituzioa kontratatzen duten gizonen sexu-beharrei edo sexu gabeziari erantzutea da, eta zenbait kasutan, emoziozko beharrei ere bai.
- Prostituzioa lanbide historikoa/tradizionala da.
- Prostituzioan aritzen diren emakume gehienek irabazi ekonomiko handiak lortzen dituzte horren bidez.
- Prostituzioan aritzea libreki aukeratzen denean, errespetatu egin behar da.

ARGUDIO KRITIKOAK (GIZONAK)

- Prostituzioa emakumeen esplotazioan oinarritzen da. Zenbaitetan, inolako babesik gabe geratzen dira emakumeak.
- Prostituzioak pertsonen trafikoa ekartzen du eta horretan aritzen diren emakume askoren duintasuna ezereztzen du.
- Prostituzioak diru «beltz» ugari sortzen du.
- Legez kanpoko jardurekin lotutako alorra da (droga-trafikoa, indarkeria eta mehatxuak...)

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN


HERRITARREN DISKURTSOAREN AZTERKETA

- Atal honetako **ondorio** garrantzitsu gisa esan daiteke **diskurtso guztiek aipatzen dutela prostituzioa ez dela desiragarria, baina betidanik egon dela.**
- Prostituzioaren iritzi orokor horrekin batera, beste uste bat agertzen da diskurtsoetan: ez da lan normala, emakumearen gorputza eta sexualitatea merkaturatu eta salerostean oinarritzen delako.
- Elementu hauek gizonen zein emakumeen iritzietan agertzen dira, baina emakumeen usteetan **generoari buruzko elementu kritiko gehiago ageri dira** (desberdintasuna, mendekotasuna...). **Gizonen usteetan, aldiz, delinkuentziarekin eta legekontrakotasunarekin** (mehatxuak, diru beltza,...) **lotutako faktore gehiago azaltzen dira.**
- Diskurtso sozialak, prostituzioaren existentzia iraintzen duten elementu ideologikoak dituen arren, **argudio historikoak erabiltzen ditu jarduera legitimatzeko.**

2. GIZARTEAREN DISKURTSOA PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN AURREAN

LABURBILDUZ

- Gizarte-erakundeei dagokienez, iritziak polarizatuta daude: batzuk abolizioaren alde ageri dira eta beste batzuk erregulazioaren alde; ondorioz, ez da lortzen prostituzioaren fenomenoa nola tratatu adostarik.
- Herritarrak, oro har, bat datoz, ez dute abolizioa-erregularizazioa gatazka jarraitzen, eta bi jarrerekin lotutako neurriak eskatzen dituzte.



3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA



3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

SARRERA

Txostenaren atal honetan, **prostituzioaren inguruan esku hartzeari buruz bildutako neurriak herritarrek nola baloratu dituzten zehaztu nahi da. Adostasun handiena lortu dutenak eta desadostasun handienak sortu dizutenak eta adosteko ezinezko gertatu direnak ezarri dira.**

Gainera, **herritarren ustez prostituzioaren inguruan EAEko Administrazioak zein zeregin bete behar duen aztertuko da.**

3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

ADOSTASUN HANDIKO NEURRIAK

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA KENTZEKO NEURRIAK

1. Kaleko prostituzioa debekatzea.
2. Proxenetismoa debekatzea.
4. Poliziaren prestakuntza.

II. GIZARTEA SENTSIBILIZATZEKO ETA PROSTITUZIOAZ DUEN PERTZEPZIOA ALDATZEKO NEURRIAK

6. Sentsibilizazio-kanpainak, genero-rolen aldaketan eraginez gizartearen pertzepzioa aldatzeko.
7. Prostituzioaren fenomenoak ikertzea.
8. Sexu-salerosketaren publizitatea ezabatzea.

III. PROSTITUZIOAN ARITZEKO BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRIAK

9. Prostituzioan aritzen diren pertsonak babestu eta laguntzea.
10. Prostituzioan dabiltzan emakumeen elkartegintza sustatzea eta aitortzea.
11. Praktika seguruak sustatzea, sexu-transmisioko gaixotasunak prebenitzeko.
13. Prebentziorako eta arretarako prestakuntza, prostituzioan dabiltzan emakumeekin harremanetan dauden profesionalentzat.

IV. PROSTITUZIOA UTZ DEZATEN SUSTATZEKO NEURRIAK

15. Prostituzioa uzten laguntzea eta utz dezaten sustatzea.

V. PROSTITUZIOA ARAUTZEKO NEURRIAK

16. Klubak edota lokalen ordutegiak eta ezaugarriak arautzea.

3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

ADOSTASUNAREN GAKOAK

Herritarren ustez -eta hemendik dator neurri horiekiko adostasuna-, **prostituzioaren fenomenorako erreferentzia-marko baten beharra dago**, ondorengo hauetan eragiteko:

- fenomenoarekin lotutako **delituak**;
- fenomenoaren **irudi soziala**;
- **jarduera egiteko baldintzak**;
- **prostituzioa uzteko alternatibak**;
- hala, **gizartearen elkarbizitza** bermatzen da.

3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

ADOSTASUN TXIKIKO NEURRIAK

I. KALEKO PROSTITUZIOA ETA PROXENETISMOA KENTZEKO NEURRIAK

3. Bezeroari asmoa kentzea.

II. GIZARTEA SENTSIBILIZATZEKO ETA PROSTITUZIOAZ DUEN PERTZEPZIOA ALDATZEKO NEURRIAK

5. Gizartea sentsibilizatzea prostituzioaren gainean duen pertzepzioa aldatzeko eta sexu-salerosketa arbuia dezan lortzeko.

III. PROSTITUZIOAN ARITZEKO BALDINTZAK HOBETZEKO NEURRIAK

12. Sentsibilizazio-kanpainak, bezeroentzat.

IV. PROSTITUZIOA UTZ DEZATEN SUSTATZEKO NEURRIAK

14. Prostituzioan dabiltzan emakume etorkinen egoera erregularizatzea.

V. PROSTITUZIOA ARAUTZEKO NEURRIAK

17. Nahitaezko azterketa medikoak.

18. Prostituzioan dabiltzan pertsonen egoera erregularizatzea.

19. Prostituzioa arautzea.

20. Prostituzioa legeztatzea.

3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

ADOSTASUNIK EZAREN GAKOAK

Neurri hauen inguruan **ez da adostasunik lortzen**:

- **Eragin negatiboa izan dezaketelako** prostituzioan aritzen diren emakumeengan.
- **Zuzenean eragiten duelako bezeroarengan** edo bezero izan daitekeenarengan.
- **Prostituzioa legeztatzea/erregulatzea dakarrelako**, eta, ondorioz, beste lan-jardueratzat hartzea dakarrelako.

3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ZEREGINA

- **Herritarrek** administrazio publikoak alor horretan esku-hartzea **eskatzen dute argi**. **Existitzen den eta tratatu behar den errealitate soziala da, eta horren ondorio logikoa da** erakundeek esku hartu beharra.
- Gizartearen ustearen ezaugarri den dimentsio praktikoa kontuan hartuta, **gizarte-elkarbizitzaren defentsa** da administrazio publikoaren esku-hartzea legitimatzen duten elementuetariko bat.
- Eskaera hori hiru elementu nagusitan oinarritzen da:
 - Prostituzioaren inguruan sortzen diren **delituei eta legez kanpoko elementuei aurre egitea** (esplotazioa, proxenetismoa, mehatxuak, droga-trafikoa...).
 - Batzuetan sortzen diren **elkarbizitzako arazoak edo gizartea nahasten dutenak** saihestea (kaleko prostituzioa, publizitatea, istilu txikiak...).
 - Prostituzioan ari diren **emakumeen egoera eta baldintzak** kontuan izatea, egoera eta baldintza horiek hobetzeko esku-hartzeen alde eta **jarduera uztera bideratutako neurrien** alde eginez.


3. HERRITARREN IRITZIA PROSTITUZIOAN ESKU HARTZEKO NEURRIEN INGURUAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGINKIZUNA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ZEREGINA

• Azken batean, **elementu antagonikoak gizarte-erakundeen diskurtsoaren ezaugarri badira ere, gizartea instituzioen esku-hartzearen alde ageri da, diziiplina anitzeko esku-hartzearen alde** (trebakuntza, osasuna, sentsibilizazioa eta hezkuntza, polizia,...). Bi dira helburu nagusiak:

- Esku hartu, **prostituzioan dabilzan pertsonen oinarrizko eskubideak bermatzeko.**

- Esku hartu, **gaur egun prostituzioaren fenomenoaren inguruan gertatzen diren ondorio negatiboak desagerrarazi edo mugatzeko.**



4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN INGURUAN ESKU HARTZEKO

4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK PROSTITUZIOAREN FENOMENOAN ESKU HARTZEKO

SARRERA

Hainbat iturritatik jasotako informazioari esker, atal honetan, **Emakunderen ustez prostituzioaren auzian EAEko administrazio publikoen esku-hartzean erabili beharrekoak diren gidalerro nagusiak ezarri ahal izango ditugu.**

Ondoren definituko ditugu zeintzuk izan behar diren:

- Esku-hartzearen filosofia.
- Garatu beharreko lan-ildoak.
- Esku-hartzea artikulatzeko modua.

4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN INGURUAN ESKU HARTZEKO

ESKU-HARTZEAREN FILOSOFIA

- Prostituzioaren inguruan Emakunderen proposamen oro gidatu behar duen oinarritzko irizpidea da **desberdintasunak amaitzea eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzea** EAEn, fenomeno horretan bestelako egiturazko desberdintasunek duten eragina alde batera utzi gabe.
- Era berean, esku-hartzeko aitortu beharra dago prostituzioan diharduten emakumeek **oinarritzko eskubideak dituztela** eta horiek babestu egin beha direla, eta **erabateko ahalmena dutela beren eskariak eta nahiak jakinarazteko** zuzenean eragiten dieten auziaren inguruan.
- Bestalde, esku-hartze horren bidez beste bide bat ahalbidetu behar da, **prostituzioa suntsitu edota erregularizatu nahi duten jarreraren arteko konfrontazioa hausteko**, polarizazio horrek galarazi egiten baitu eremu honetan ekimenak abiaraztea.

4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN INGURUAN ESKU HARTZEKO

GARATU BEHARREKO LAN-ILDOAK

- Betiere, berdintasunerako, garapenerako lankidetzarako, immigrazioarako, eta pobretasuna eta barterkeriari aurre egiteko politikak sakonduz, prostituzioa ahalbidetzen duten egitura-faktoreetan eragiteko egingo den epe luzerako eskuhartze orokorraz gain, administrazio publikoek epe motzean egin beharreko esku-hartze espezifikoak —aurrez egindako azterketaren arabera— **2 ildo estrategiko edo lan-ildo izan behar ditu:**
 - ✓ **1. ildo estrategikoa:** Prostituzioan ari diren emakumeak gizartean baztertuta gera daitezen ekiditea, haien oinarritzko eskubideak bermatuz.
 - ✓ **2. ildo estrategikoa:** Prostituzioan ari diren emakumeen bizi-baldintzak eta lan-baldintzak hobetzea, araudi espezifiko baten bidez.
- Ondoren, **ildo estrategiko bakoitzarekin lotutako neurriak edo ekimenak** azalduko ditugu. Abian jarri aurretik sakon aztertu, eta beste neurri batzuekin osatu beharko dira.

4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN INGURUAN ESKU HARTZEKO

- **Diagnostiko bat** egitea, **prostituzioan aritzen diren emakumeen funtsezko eskubideak zenbateraino betetzen diren ikusi**, eta dauden hutsuneak zehazteko.
- **Gizarte-bitartekaritza bultzatzea**, kolektiboak zein behar dituen jakiteko eta oinarrizko gizarte-eskubideak bermatzeko sistema publikoaren baliabideak erabil ditzaten ahalbidetzeko.
- **Egoera irregularrean dauden emakumeak erroldatzeko** formulak prestatzea, oinarrizko estaldura sozialez eta publikoez baliatzeko aukera izan dezaten (oinarrizko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak, osasun txartel indibiduala,...).
- **Harrera-egoitzak** sustatzea, aldi baterako bizileku-beharrei erantzuteko, kolektiboaren mugikortasun geografikoa murrizteko, erroldatzea errazteko eta bakoitzaren beharren arabera, lan pertsonalizatuagoa eta egonkorragoa ahalbidetzeko.

4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN INGURUAN ESKU HARTZEKO

- Herritarren segurtasunerako politikak indartzea, **sexu-trafikoa eta esplotazioa deuseztatzeko** eta prostituzioan dabiltzan emakumeen **segurtasuna bermatzeko**.
- **Osasunaren inguruko beharrian espezifiko** erantzuteko neurriak artikulatzea (osasun txartel indibiduala, sexu bidezko gaixotasunen eta drogomendekotasunaren prebentzioa eta tratamendua,...).
- **Prostituzioa uzteko gizarteratze- eta laneratze-programak** abian jartzea, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta ikuspuntu integral batetik horiek eduki ditzaketen beharrei heltzeko (etxebizitza, laguntza ekonomikoak, prestakuntza, enplegua,...).
- **Etxebizitza** lortzeko formulak prestatzea.
- Prostituzioaren errealitatearen inguruan **hainbat eremutako profesionalak trebatzea** (gizarte-zerbitzuak, osasuna, legezko aholkularitza, polizia...), esku-hartzea eraginkorragoa eta haien beharren arabera izan dadin.

4. EMAKUNDEREN GOMENDIOAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN PROSTITUZIOAREN FENOMENOAREN INGURUAN ESKU HARTZEKO

ESKU-HARTZEA ARTIKULATZEKO MODUA

- Gaur arte, prostituzioan ari diren emakumeen kolektiboarekin egin beharreko lanean gutxi gora-behera espezializatutako gizarte-eragileei laguntzak eta diru-laguntzak emanez esku hartu dute administrazio publikoek. Horren haritik, jauzi kualitatibo bat egitea planteatzen da: **ekintza publiko egituratua, koordinatua eta eraginkorra lortu nahi da, -zerbitzu publikoaren ikuspuntutik- esku-hartzeetan kalitate eta egonkortasun minimoak bermatuko dituen denboran barrena.**
- Hala, arlo honetako jardura publikoa **Eusko Jaurlaritzak gidatu beharko luke, inplikaturik dauden gainerako euskal administrazio publikoekin elkarlanean.** Horrez gain, helburu espezifikoak eta garatu beharreko ekintza zehatzak ezarri behar lirateke, bai eta arduradunak, egutegia eta aurrekontua, eta segimendua eta ebaluazioa egiteko adierazleen sistema estandarizatua ere.